

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure helburua etengabe aldatzen diren pneumatikoak alde batera utziz, fidagarriagoak eta gehiago iraungo dutenak sortzea da. Hala ere, betiko gurpilak duten indarra eta heldulekuak mantentzen saiatuko gara, gainera, guztientzako ekonomikoagoak izan daitezen ahaleginduko gara.



Bestalde, kotxeetan oinarritutako proiektu hau, beste hainbat garraioetarako egokitzen saiatuko gara, hala nola, bizikletak, motorrak, patineteak...

Modu honetara, ibilgailu guztietan segurtasuna bermatzea lortuko dugu.



Gure gurpilak ainerik gabekoak izango dira eta modu ekologikoan sortutako kautxo erabiliko dute, naturan eragin gutxiago izan dezaten. Hauek, kanpokaldean (gainazalarekin kontaktuan egongo den zatia) kautxo mota gogorragoa eta erresistenteagoa izango dute, eta barnealdean aldiz malguagoa eta elastikoagoak lurreko irregulartasunetara egokitzeko.

Gure produktuaren balioa kuantitatiboa zein kualitatiboa izango da, arrazoizko prezioa jartzen saiatuko gara. Hala ere, gure produktuen prezioen gorabeherak materialaren araberakoak izango dira. Bestalde, kualitatiboa izango da gure gurpilen diseinuari garrantzia emango diogulako, noski bere funtzioa ondo betetzen duela ziurtatuz.

Gurpilak sortzeko kautxua, aluminioa eta altzairua erabiliko ditugu nagusiki. Material hauek inguruko hainbat enpresetatik lortuko ditugu, kutsadura ekiditen saiatzen diren enpresetan, ahalik eta Km 0-en izan daitezen.

Gainera, gobernuarekin sal-erosketa lanetan arituko gara gure inguruko zerbitzu publikoetako garraioetan erabilgarriak izan daitezen.



Azkenik, gurpilen sarrera errazteko fabrika fisikoa izateaz gain, internet bidezko eskaerak egitea posible izan dadin [webgune](#) bat izango dugu, honen erabilerraztasuna bultzatuz.